



**Berritzeguneak**  
Vitoria-Gasteiz



**EUSKO JAURLARITZA**

HEZKUNTZA SAILA  
Prestakuntzan eta Hezkuntzaren  
Berrikuntzan Laguntzeko Zentroak



**GOBIERNO VASCO**

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN  
Centros de Apoyo a la Formación e  
Innovación Educativa

MD1213

Err. Onespen eta  
indarreko data

0 01-07-2011

## Lan plangintzaren balorazioa

taldea: **Haur eta Lehen Hezkuntza**

ikasturtea: **2018-2019**

### 1. Sarrera

2018-2019 ikasturtean kontuan hartu ditugu Hezkuntza Sailak ezarritako lehenetasun ildoak ikasturte honetako lana burutzeko. Ezaguna denez honako hauek dira aipatutako ildoak:

- Hezkuntza Komunitatearen Prestakuntza egitasmoa
- Hezkuntza inklusiboa eta aniztasunaren arreta egitasmoa
- Elebitasuna hezkuntza eleanitz baten baitan egitasmoa
- Ikas-irakas prozesuetan IKT-en integrazioa egitasmoa
- Ebaluazioa eta ikerketa egitasmoa

Ikasturte honetan ere, Prestakuntza Ekimen Globalak berebiziko garrantzia hartu du, horregatik gure lanaren zati handi bat honetan eman dugu. Izan ere argi dugu ekimen hau garatzea ikastetxe eta ikasleen kompetentzia maila hobetzeko erronka garrantzitsua dela. Hau izan da beraz, gure eta gure ikastetxeen lehenetasuna. Berritzeguneetako aholkulariok elkarlanean aritu gara ikastetxeekin hauen beharrak modu egokian bideratzeko.

Ikasturte honetan adostu dugu ebidentzien jasotzea nola egingo dugun.

Horretaz gain, eta arestian aipaturiko ildoak oinarri, gure lan-talde desberdinen lana garatu dugu ikastetxeetan isla egokia izan dezan; honen memoria lan-talde bakoitzak egin du.

Arabako egoera aztertuta, gure aholkularitzak geletan eragin sendoa izan dezan berebiziko indarra eman diogu teoriarik jasotzeko gelan ezartzeari, honetarako ebidentzia zehatzak eskatu zaizkie. Bestalde, ikastetxeei ahalik eta laguntza integralena eskaini nahian, jarraian agertzen diren lan-esparruak jorratu ditugu:

- Hamaika esku programan sartuta dauden 23 ikastetxeei erantzun koordinatua eta integrala ematen saiatu gara. Honetan aparteko garrantzia izan du aurreko Irakurketa Planaren egitea.
- Egoera zaurgarrian dauden ikastetxeei, nahiz eta Hamaika esku programa barruan ez egon, erantzun berdintsua eman diegu.
- Formakuntza/Berrikuntza Proiektuei, erantzun egokia eman zaie eta balorazio onak lortu dira.
- Mintegiak/ikastaroak gauzatu dira eta, oro har, oso ongi baloratuak izan dira.

Honez gain, Hezkuntza Sailak esleitutako beste zenbait zereginetan parte hartu da; hala nola: HHko egitasmoa, arreta goiztiarra, ISEI-IVEI, Berritzegune Nagusiko bilerak, Eusle, Magnet...

Ikusten denez aipatutako guztiak lan-zama handia suposatu du, baina, aholkularion koordinazio egokiari esker modu egokian erantzuten ahalegindu gara.



**Berritzeguneak**  
Vitoria-Gasteiz



**EUSKO JAURLARITZA**

HEZKUNTZA SAILA  
Prestakuntzan eta Hezkuntzaren  
Berrikuntzan Laguntzeko Zentroak



**GOBIERNO VASCO**

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN  
Centros de Apoyo a la Formación e  
Innovación Educativa

MD1213

Err.	Onespen eta indarreko data
0	01-07-2011

## 2. Ikastetxeetan garatu diren eskuhartze nagusiak [esanguratsuak] Hezkuntza Sailaren lehenotasuneko jarduera-eremuen arabera

Ondo egindakoa <i>Lo que se hizo bien</i>	Hobetzeko aspektuak eta proposamenak <i>Aspectos a mejorar y propuestas</i>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Prestakuntza Ekimen Globala moduluak aurreikusi bezala eraman dira aurrera ikastetxeetan. Ebidentziak adostu dira taldean eta ikastetxeei eskakizun maila hau adierazi zaie eta betetzen ahalegindu dira oro har.</li> <li>• Deialdi desberdinetatik edo Berritzeprest-etik jasotako eskari guztiei erantzuna eman zaie eta hauetan ere balorazio onak jaso dira.</li> </ul>	

## 3. Prestakuntza ekintzak: ikastaro eta mintegiak

Ondo egindakoa <i>Lo que se hizo bien</i>	Hobetzeko aspektuak eta proposamenak <i>Aspectos a mejorar y propuestas</i>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Aurreikusitako ikastaro eta mintegi gehien gehienak burutu dira eta balorazio ona jaso dute.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Mintegi eta ikastaroen balorazioak egiteko sistema hobetzeko ahalegina egin beharko da esku-hartze esanguratsuekin egin den bezala.</li> </ul>